

KANALAK

Elkartutako kanala eta zeharkakoa erabiliko ditugu.

Komunikazio kanala

Bezeroek gurekin zuzenean hitz egiteko aukera izango dute, beraientzat erosoagoa izan dadin eta gaizki-ulerturik egon ez dadin. Gainera, korreo elektroniko bat eta mugikor zenbaki bat ere izango dute eskuragarri, edozein galdera izango balute gurekin kontaktuan azkar jartzeko. Horrez gain, web gune bat sortu dugu, <http://ihiruene.1apps.com/>, bertan gure txamarren alokairua ahalbidetuko dugu eta gure produktuaren informazio osoa izango dute eskuragarri.

Banaketa kanala

Behin web gunearen bidez edo telefonoz eskatuta gu arduratuko gara txamarrak enpresara edo bezeroarengana eramateaz. Horretarako, Noraren furgoneta erabiliko dugu.

Salmenta kanala

Gure txamarrak alokatzeko hainbat aukera daude. Bezeroek, gure web gunean edo telefonoz erreserba egin dezakete txamarra izango dutela ziurtatzeko. Web gunea erreserba egiteko bakarrik izango da, txamarra hartzerakoan egingo da beti ordainketa.